



Literaturako Nobel saria Bob Dylanentzat

Urte askoan faboritoen kinielan egon ondoren, Bob Dylan musikari eta kantariari eman diote Literaturako Nobel saria.

Bob Dylan (Robert Allen Zimmerman) 1941eko maiatzaren 24an jaio zen, Minnesotako Duluth herrian (AEB). Gaztetan hainbat musika taldetan aritu zen. Musikarekiko interesean sakonduz, Ameriketako folk eta blues estiloarekiko aparteko zaletasuna azaldu zuen. 1961ean New Yorkera lekualdatu zelarik hasi zen tabernetan jotzen, eta bertan ezagutu zuen John Hammond produktorea; harekin grabatu zuen bere lehen diskoa.

Geroxeago plazaratutako diskoan zegoen *Blowing in the Wind* abestia ezagun egin zen. Hainbat estilo uztartu ditu; besteak beste, folka, countrya, bluesa, rocka eta jazz.

Duela 14.500 urte marraztutako zaldi, bisonte eta lehoiak azaldu dira Lekeitioko Armintxe leizean

Santimamiñeko haitzuloan dauden garai bereko grabatuak topatu dituzte Armintzako kobazuloan, Lekeition. Orain dela 14.500 urte egindako grabatuak "kalitate tekniko izugarria" dutela nabarmendu dute Foru Aldundiko iturriek. Horrez gain, oso erraz ikusten direla ere azpimarratu dute.



zituzten Berriatuko Atxurra kobazuloan.

Datorren astean hasiko da gripearen aurkako kanpaina

Astelehenean hasiko da gripearen aurkako aurtengo txertaketa-kanpaina Osakidetza osasun-zentro, ambulatorio eta ospitale guztietan, eta bi hilabete iraungo du honek.

Oso garrantzitsua da txertoa hartzea kanpainaren helburu diren arrisku-taldeentzat: 65 urtetik gorakoak, gaixotasun kronikoren bat dutenak eta haurdun dauden emakumeak. Izan ere, gripea gaixotasun larria izan daiteke pertsona horientzat, eta konplikazioak eta heriotza ere eragin ditzake.

Txertoa segurua eta eraginkorra da, eta konposizioa urtero egokitzen da Osasunaren Mundu Erakundeak (OMS) ipar hemisferiorako aurreikusitako birusetara. Iaz 367.000 dosi baino gehiago eman ziren eta seik bakarrik izan zuten kontrako erreakzioa, larririk batere ez.



Lekeitioko herrigunean bertan dago haitzuloa, eta azpimarratu dute argirik ere ez dela behar grabatuak ikusteko. Iberiar Penintsulan orain arte egindako aurkikuntza zirrargarrienetakoa da. Hemezortzi zaldi, bost ahuntz, bi bisonte, bi lehoi eta zehaztu gabeko lau oineko lau animalia identifikatu dituzte adituek, oraingoan. Irudi figuratiboak ez ezik, abstraktuak ere badira; lerro bat eta zirkulu erdiko ikurrak, hain zuzen ere.

Ez da aurreko eguneko lehen aurkikuntza Bizkaian. Maiatzean, 70 labar pinturatik gora aurkitu

Brontzea eskuratu du Castroviejok

Espero zen podiumetik gertu izatea, baina hori ere hobetu egin zuen Jonathan Castroviejok eta hirugarren denbora onenarekin amaitu zuen Dohan jokaturako munduko txapelketako erlojupekoa. Movistar taldeko bizkaitarrak 45 minutu 53 segundo eta 90 ehuneko denboran egin zuen 40 kilometroko ibilbidea. Urrea, berriz, Tony Martinentzat izan da eta zilarra Vasil Kiryienka.

Brontzeak, dena den, "urre zaporea" duela aitortu du Castroviejok. "Urte gogorra izan da. Lehen erdian eroriko larri bati egin behar izan diot aurre, eta dominarik gabe itzuli nintzen etxera. Opari txiki bat da hau". Ordea, lasterketa gogorra izan dela ere onartu du Movistarreko txirrindulariak: "Lasterketaren bigarren zatia izan da okerrera. Haizea aurka nuen eta ez da erraza izan aurrera egitea".



Azken asteak gozoak izaten ari dira txirrindulari bizkaitarrentzat. Izan ere, Europako Txapelketan lehen postuan amaitu zuen erlojupekoa, bigarren egin zuen Victor Campenaerts flandriarrari 30 segundoko tartea atereaz.

Real Racing - Athletic, Kopan

Athletic Clubek Kopako final hamaseietako jokaturako du Real Racing Cluben aurka, gaur egin den zozketaren arabera. Orain arte ipinitako datak hauek dira: azaroaren 30ean Santanderren eta abenduaren 21ean San Mamesen.

Beste alde batetik, Athletic Clubek eta Markel Susaetak azken honen kontratua luzatu dute. Horren arabera, talde zuri-gorriko jokalaria izango da 2019ko ekainaren 30era arte. Etete klausula 45 milioi eurokoa izango da.

Beurko Bagatza auzoko barrakak gozatzeko giro eguzkitsua

20 urte eta gero, Beurko Bagatza auzoak barrakak berreskuratuko ditu giro eguzkitsua eta egonkor batean. **Larunbatean**, zeruan goi-hodei batzuk besterik ez ditugu ikusiko eta, hortaz, eguzkia izango da jaun eta jabe. Haizeak, gainera, hegoaldeko joko du eta tenperaturak gora egin ahal izango du; eguneko altuenak 20-23 °C artean ibiliko dira. **Igandean**, giro egonkorrekin eta tenperatura suabearekin jarraituko dugu. Eguna eguzkitsua hasiko da. Arratsaldean, hodeiak sartzen joango dira hegoaldeko, baina ez dute euririk utziko. Tenperaturak aldaketa handirik gabe jarraituko du: epelak egunez baina hotzak goizaldean.



FOSMINER

2016

Urriak 14 - 15 - 16 DOAKO SARRERA



39ª Exposición Internacional de Minerales y Fósiles
Mineral eta Fosilen Nazioarteko 39. Erakusketa



Bildumazale, merkatari, ikertzaile eta irakasleen arteko erakusketa ezaguna da Fosminer, baina, batik bat, ideia nagusia da txikien artean jakin-mina piztea, modu didaktikoan zibilizazioen sorrera uler dezaten.

Fosminer-ek Atapuerca Fundazioaren partaidetza izango du, eta suaren eta bere zaintzaren, historiaurreko margolaritzaren eta zizelkatze litikoaren inguruko tailerrak emango dituzte.

'Ozzy' filma euskaraz estreinatuko da gaur

Pelikularen abiapuntua Ozzy untxariaren kontakizuna da. Erregeen pare bizi den beagle arrazako txakur maitagarri eta baketsua da, baina familiak Japoniara bidaiatuko du eta, ondorioz, maskota txakurrentzako bainuetxe batean utzi beharko dute. Baina, bainuetxea ez da luxuzko txakurrentzako hotela, ordea, kartzela moduko bat.